

txeak lehenengoz argitaratu ditu liburu bakarren idazlearen eskal tetralogiako lanak. Berez, trilogia bat egitea zen idazlearen hasierako asmoa, eta ideia horrekin idatzi zituen *La casa de Aizgorri*, *El mayorazgo de Labraz* eta *Zalakain abenturazalea*. Elkartuta ere argitaratu zituzten hiru lanak bera bizirik zela, baina 1922an *Altzateko jaun* liburua idatzi, eta tetralogia bilakatu

«Onartu ala onartu gabe», Baroja egungo euskal idazle askoren «aitona literarioa» dela dio Aingeru Epaltzak

zuen trilogia. Eta orain argitaratu dituzte laurak batera aurrenekoz. Baina zentsurak ere izan du pisurik Barojaren argitalpen data bihurrietan. Bizirik zela, 1936ko gerrari buruz idatzitako trilogia-ko liburu bakarra ikusi ahal izan zuen kalean, esaterako: *El cantor vagabundo*. Debekatu egin zizkioten beste bi lanak; 2006an argitaratu zen trilogiako bigarrena: *Miserias de la guerra*. Eta, azkenik, iaz heldu zen hirugarrena: *Los caprichos de la suerte*. Idazleak bizitoki izan zuen Berako Itzea etxean egon zen ordura arte, karpeta gris batean, soka gorri batzuekin bilduta. Baina horixe da argitaratu gabe geratzen zen haren azken lana. «Ez dago material literario berri gehiago», zehaztu zuen Pio Caro Baroja ilobak.

Urmaelen aurka

Baroja gutxiegi euskaratu ote zen, eztabaida bazegoen garai batean, eta susmoa zen ea haren jarrera politikoaren eraginez izan ote zen. Ordea, azken urteetako publikazioek erabat itxi dute polemika hori, 2006tik hona *Jakintzaren arbola* eta *Zalakain abenturazalea* eleberriak eta haren ipuin bilduma bat euskaratu baitituzte, hurrenez hurren, Koro Navarro, Josu Zabaleta eta Felipe Juaristi itzultzaileek.

Izen handia da Barojarena, eta horregatik dabil beti haren izena errekarri bat bezala kultura orrietan bueltaka. Eta, hain justu, jarioan ulertzen zuen hark ere literatura. «Nobela, oro har, Historiaren korrontea bezalakoa da: ez dauka ez hasierarik ez bukaerarik; nahi den lekuan hasi eta amaitzen da. [...] Noski, badago jende abila Historiaren jario horri hormak jarri, hura geldiarazi, enbaltatu eta gero Erretirokoen moduko urmaelak sortzeko gai dena. Batzuek maite dituzte muga horiek; beste batzuek aspergarri eta gogaikarri zaizkigu».

Zer den entenditu gabe

Alex Gurrutxaga

Eleberri eta liburu kontzeptuak bereiztea ezinbestekoa da, zeren, arraroa eman balezake ere, badaude nobela txarrak liburu interesgarriak direnak. Halako zerbaite gertatzen da *Neronek tirako nizkin* izenekoarekin (1964). Ezin esan nobela balio estetikoengatik nabarmentzen denik, baina, hala ere, irakurtzekoa da zalantzarik gabe.

Mende erdian Joan da Antonio Zabalak Sebastian Salaberriaren lana argitaratu zuenetik, eta Auspoak berriz editatu du, oraingoan euskara batuan (Hauspoa sailean).

Funtsean autobiografia nobelatua da: Salaberriak bere bizipenak kontatzen ditu, gaztaroko baserri giroko bizitzatik hasi (I-IX atalak) eta Gerra Zibileko ibilerekina amaituz (X-XXIX atalak). Hori guztia, epika hotsandikorik gabe, abentura-nobelaren estilo

arinean, eta ahokotasunaren arrasto freskoarekin.

Zer kontatzen duen ez gureku aurreratu nahi eta, begira diezaiozun eleberriari beste talaia batetik. 1940ko hamarkadan hasi ziren Espainian sortzen Gerra Zi-



'Neronek tirako nizkin'

Egilea: Sebastian Salaberria.
Argitaratzailea: Auspoa.
Urtea: 1964 / 2016.

Frankotiratzailea



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Zure esku dago liburu honen harrera nolakoa izango den erabakitzea, baina agian...

Hastapenetan joko duzu denborapasa hutsaren bidetik, suspensearen eta gerra abenturen arteko obra batekin bazeunde bezala, zorigaitzetatik deskonektatzeko ariketa bat egiteko asmoz, nork-zer-non delakoari kasurik egin gabe.

Berandu baino lehen, ordea, zaila egingo zaizu ihes egitea muinean dagoen errealitateari, eta hain justu nork-zer-non horri ipiniko diozu fokua, ardura soziala piztuta kontakizunak iradokitzen -eta erakusten- dizkizun bidegabekiengatik, madarika-zioka, eguneroko gertakari ez hain urrunak gogoan.

Hirugarren pausoa irakurle

saiatuentzako litzateke, idazle nor den ohartu orduko obra honen faktoria ekandua noraino iristen ote den ebazten hasita, 40 urtetan 400 liburu idatzi dituen batek ezin dituelako gauzak zintzo egin, idazle bati eskatu behar zaion literaturarako - are, arterako- jaidurarik gabe ekoitzi bide dituelako sorkuntza horiek guztiak.

Edo, agian, niri gertatu zaidan legez, arestiko hiru pauso horietatik pasako zara.

Madarikatzen ditut gerra guztiak: pobreen miseria, diruzaleen pagotxa!!



'Tximeletaren oihua'

Egilea: Jordi Sierra i Fabra.
Argitaratzailea: Ibaizabal.
Itzultzailea: Aitor Arana.

bila anaiarteko gerratzat esplikatzuten zuten interpretazio historikoak. Literaturan ere ez dira gutxi ildo honetako berrirakurketak. Hartu gogoan, adibidez, Kain eta Abelekin egindako paralelismoak, hala nola Luis Cernudaren hura: «*Ellos, los vencedores/ Caines sempiternos*». Interpretazio ildo horren arriskuak ikertzaile askok jarri dituzte agerian, gatazka senitartekotzat jotzeak maila politikoan ekar dezakeelako - eta batzuk horretan saiatzan dira oraindik ere- erantzukizunak lausotzea eta garaileak eta garaituak hala-hala berdintzea. Beste muturrean legoke Gerra Zibila inbasio nazionalaren teoriara -espainiarrek Euskal Herria- murrizten duen interpretazio herriena - zeren, Idoia Estornosen hitzekin esateko, «*el franquismo fue también vasco*»-.

Salaberriarena bezalako istorioek erakusten dute beharrezkoa dela idatzita ematen dizkiguten Historiak zalantzan jarriko dituen pentsaera kritikoa elikatzea. Izan ere, Euskal Herria izan ziren gudariak, eta baita frankistak ere; izan ziren boluntarioak, eta baita euren gogoaren kontra joandakoak ere; eta izan ziren gerra alde bietan egitea tokatu zitzaizkien senitartekak. Azken

horietakoa izan zen Salaberria familia, eta ibili ziren «inkurriorekin gabe alkarri tiroka fusillarekin».

Anjel Lertxundik hitzaurrean dio fabula morala dela Salaberriarena; morala eta humanoa, esango nuke: lehen eskuko testigantza da, zeinetan pertsonaren duintasuna den nagusi, eta ez perspektiba historiko-politiko -Xenpelarrek aurreko mendearen esan zuen moduan, «zer dan entenditu gabe, ortan galduko geredu»-; eta, guztiaren gainera, Salaberriak gerraren aurka hitz egiten du.

Neronek tirako nizkin bezalako historia pertsonalek gerraren historia orokorra humanizatzen pausotxo bat ematen dute, gertakari historikoak norbanakoaren mailara -zeren, Horrela, literatura Historiaren orrietan ez dau den bizipen pertsonalak jasotzen ditu, garailek idazten duten Historiak isiltzen dituen oromenak.

Azken ohar bat: Pello Esnalek irakurle gazteak aipatzen ditu sarreran, eta esango nuke eskoletan irakurtzeko moduko liburua dela. Esan dugu ez dela literatura maila estetiko aparteko nobela, baina bai irakurketa gustagarria, eta balio historiko, kultural eta humanoa ere bere alde ditu.

Zomorrozaleentzat



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

I. Mercero

Zomorrozale direnek, edota zomorrokiko zaletasuna zabaldu nahi dutenek, badute bazka ederra liburu honetan.

Perspektiba askotatik hurbiltzen laguntzen duten irudiak daude, grafikoki hiru mudototan bana daitezkeenak: argazkiak, landako entomologoaren marrazketa deskriptibo zehatzak, eta baita kutsu infantilagoa duten marrazki xaloak.

Testuak mota askotakoak daude ere: badaude zomorrozaren ezaugarri bakar bat adierazten dutenak, badaude sekuentzia baten azalpenak ematen dituztenak, badaude alor jakin bateko azalpenetan gehixeago luzatzen diren testuak (ziztadak...), badaude instrukzioak ematen dituztenak -demagun intsektuen-

tzako babestokiak sortzeko... Eta, egotegatik, badago ipuin bat ere.

Egitura aldetik nahasgarria iruditzen zait hasieran -atalak kolore eta gaika banatuta egonik ere aurkibidean-, baina iruditzen zait ere obra ongi barneratu duen gidari batekin zuku asko atera da-kiokela.

Akatsik ia ez diot topatu, akaroari *akain* (sic) deitzea da horietako bat, eta bestea siridoari buruzko azalpenak intsektu makilari dagozkionak izatea. Ez du ematen gehiago daudenik.



'Piztia txikiak'

Egilea: Pascal Hedelin. Itzultzailea: Azitri. Ilustratzailea: Hainbat. Argitaratzailea: Ttartalo.